


Ageda Bezpera Pagano eta Feminista

La Kora



Santa Ageda bezpera honetan, Kora-ko emakumeak ere gure makilekin kalera ateratzen gara abestera, kontzientziak astintzera, tradizio bat berrikustera, zeinaren jatorria, izatez, aldareetara igotako indarkeria matxistaren eta zapalkuntzaren historia den.

Esanahi ezberdina berreskuratu nahi dugu, lehenagokoa, kristautasunaren aurretik ere Euskal Herrian errito eta jai paganoak ospatzen ziren eta. Neguaren erdialdean, otsailean, jendea kantatzera irteten zen eta makilekin lurra jotzen zuten erritmikoki, Ama Lurra esnatzeko neguko solstizioaren ondoren.

Gaur, gure bularrak betez abesten dugu eta Agedaren tortura salatzen dugu. Haren oroimenez abesten dugu eta gure makilekin sinbolikoki kontzientziak astintzen ditugu. Beragatik, gugatik eta isilarazitako emakume guztiengatik abesten dugu eta ironiaz eta lotsagabekeriaz egiten dugu, geure hitzekin, gure askatasun eta bizitza nahiak airera botaz.

Una víspera de Águeda pagana y feminista

En esta víspera de Santa Águeda, las mujeres de **La Kora** salimos también a la calle con nuestros bastones a cantar, a remover conciencias, a revisar una tradición cuyo origen, en realidad, es una historia de violencia machista y de opresión elevada a los altares.

Queremos recuperar un significado diferente, anterior, porque ya antes del cristianismo, en Euskal Herria se celebraban ritos y fiestas paganas. A mediados del invierno, en el mes de febrero, las gentes salían a cantar y golpeaban el suelo rítmicamente con sus bastones, para que la Madre Tierra fuera despertando de su letargo tras el solsticio de invierno.

Hoy, nosotras cantamos llenando nuestros pechos y denunciamos la tortura de Águeda. Cantamos por su memoria y con nuestros bastones sacudimos simbólicamente las conciencias. Cantamos por ella, por nosotras y por todas las mujeres silenciadas y lo hacemos con ironía y descaro, con nuestras propias palabras, lanzando al aire nuestros deseos de libertad y vida.

Abestu gurekin!

¡Canta con nosotras!

Ageda bezpera pagano eta feminista

Santa Ageda bezpera dugu,
Euskal herriko ohitura,
Aterik ate kantari gatoz
Zuen arima astintzera.
Bularrak moztea indarkeriaz
Ez da ospatzeko gauza,
Makilen kolpez salatzen eta
Oihukatzen dugu egia.

Agate izeneko emakumea
Beti gure memorian,
Andrak bizirik eta libreak
Hori denon zoriona.
Otsailaren hasiera honetan
Elkarrekin goaz kalera,
Gure bularrak puzten ditugu
Abesteko nahi duguna.

Orain bagoaz alde egitera
Agur eta esker mila,
Gure koplak berriak zuentzat
Berrito hurrengo urtean.
Aire berria, udaberria
Laster hemen izango da,
Esna dezagun gure Ama Lurra
Eta zain dezagun elkar.

Bat, bi, hiru, **IEUUUP!!**

Oles ta Oles

*Oles ta oles emakumeok
Kantura gatoz kalera
Makil soinu ta gure ahotsez
Ama Lurra esnatzera*

- La Kora -

Koplak

- 1 Askatu zure piztia
Alaitu zure bizia
Zure eskutan daukazu maite
Desio duzun guztia.
- 2 Egunez ta gauerdian
Autobus edo taxian
Libre ibili eskatu gabe
Gelditzeko atarian.
- 3 Zis gizonen arazoa
Ezagutzen dut kasua
Hankak zabalik betetzen dute
Metroko bagoi osoa.
- 4 Martxoak zortzian greba
Borrokorako aukera.
Lege zaharrak kunpli daitezen
Eta berriak atera.
- 5 Dena dakizun gizona
Entzutea duzu ona
Emakumeok zientzian ere
Astintzen dugu neurona.
- 6 Galdetu nahi duzuenan
Ea bakarrik gabiltzan,
Zenbatu lehen, mutil argia
Hogei neska gara eta.
- 7 Bortxatzailea zeu zara
Munduan zehar entzun da.
Matxismoaren erro sakonak
Elkarrekin lehertzera.